



Sagardoetxea, Sagardoaren Museoa. SAGARDOETXEA

ZENTZUMENEKIN JOLASEAN SAGARDOETXEAN

Udaberri eta uda honetan, Sagardoetxea museoa eskaintza berriarekin dator: bisitariekin zentzumenak landu eta sagarraren unibertsoan barneratzeko edukiak garatu ditu; zehazki, zentzumenekin jolasean aritzeko usaimenen gunea eta museoko sagastian aisialdi taldeekin jolasteko ihes gela. Sagarrekin jolas egiteko aukera ederrak.

Ha m a z a z p i urteko ibilbidea egina du Sagardoetxea Sagardoaren Museoak. Astigarragan (Gipuzkoa) dago, urtean 12.000 bisitari jasotzen ditu, eta, urtetik urtera, gero eta bisitari gehiago bertaratzeko dira sagardoaren kulturaz gozatzera.

Gaur egun, museoak sagardoaren kulturako bitxikeriei, historiari eta elaborazio prozesuari dagozkien edukiak ezagutarazteko hiru gunek dauzka: sagastia, museo gunea eta dastalekua. Eta azken hori izan da, hain zuzen, bisitariak zentzumenak lantzeko eraberritu dutena; sagardoa-

ren eta sagarraren eratorriak dastatzeko prestatutako guneari beste bat gehitu diote: usaimenen gunea. Bisitariak aukera emango die usaimenarekin jolasean aritzeko.

ESPERIMENTATU ETA GOZATU

Usaimenen gunean, sagarraren munduko eta naturako beste hainbat lurrinekin esperimentatzeko eta gozatzeko aukera eskaintzen zaio bisitariari: fruta usainak, lore usainak, natura usainak eta abar ezagutuko ditu landare lehorrekin, naturalekin eta lurrin ontziekin jolasean. Gune berriak irudimenari hegan egiten uzten dio, eta bisitariak bere zentzumenekin jolasean aritzeko

eta museoko bisita beste modu batean gozatzeko aukera izango du hemendik aurrera Sagardoetxean.

Museoko erakusketa iraunkorra berritzeaz gain, Sagardoetxeak uda garaietan izaten dituen aisialdi taldeentzako udako eskaintza ere berritu du. Sagarraren eta sagardoaren kulturako edukiak modu ludikoagoan zabaltzeko asmoz, uda sasoiaren egiten dituzten bisiten edukiak ihes gela formatura egokituko ditu. Horiek hala, uda honetan Sagardoetxea bisitatzeko duten haur taldeek edukioak jolas, asmakizun eta proba ugari bidez lantzeko aukera izango dute.

Argi geratu denez, Sagardoetxean zuzua ateratu diote sagarra-



Usaimenen gunea, Sagardoetxean. SAGARDOETXEA



Ihes gela, Sagardoetxean. SAGARDOETXEA

ren fruta arbolari, eta sagarraren kulturaz gozatzeko hamailka egitasmo eskura ditu bertaratu nahituen orok.

Oraindik Sagardoetxearen

nondik norakoen berri ez duenak www.sagardoetxea.eus webgunean eskuragarri du urte osoan eskaintzen dituen jardueren buruzko informazioa.